

**La población ocupada
desciende en 2010 a 948.900
personas y la tasa de paro se
sitúa alrededor del 9%**

En 2010 continúa la línea del año anterior de descenso de la población ocupada y aumento de la población parada.

**2010eko biztanleria landuna
948.900 pertsonatara jaitsi da
eta langabezia tasa %9ren
inguruan da**

2010ean, aurreko urtean bezalaxe, biztanleria landuna beheraka eta langabeak goraka.

Euskal AEn lan-eskaintzaren zifrak. 2010/2009

Cifras de oferta de trabajo en la C.A. de Euskadi. 2010/2009

	2009	2010
16 urte eta gehiagoko biztanleria / Población de 16 y más años	1.864.100	1.867.700
Biztanleria aktiboa / Población activa	1.035.600	1.044.800
Biztanleria landuna / Población ocupada	951.500	948.900
Biztanleria langabea / Población parada	84.200	95.900
Biztanleria ez aktiboa / Población inactiva	828.500	822.900
Aktibotasun-tasa / Tasa de actividad	55,6	55,9
Langabezia-tasa / Tasa de paro	8,1	9,2

Iturria/Fuente: EUSTAT

Durante 2010 la cifra media de ocupados en la C.A. de Euskadi ha sido de 948.900 (-0,3%). La población ocupada ha descendido en Álava y Bizkaia mientras que en Gipuzkoa ha experimentado un ligero aumento. En términos relativos destaca el descenso de Bizkaia (-0,8%), seguido por el de Álava (-0,2%) y, por último, Gipuzkoa (+0,04%).

2010ean, landunen batez besteko kopurua 948.900 (%-0,3) izan zen Euskal AEn. Biztanleria landuna jaitsi egin da Araban eta Bizkaian eta pittin bat igo Gipuzkoan. Balio erlatiboetan Bizkaiko jaitsiera nabarmendu zen (%-0,8); Araban (%-0,2); Gipuzkoan, (%+0,04).

El sector servicios no logra absorber la pérdida de empleo del resto de los sectores económicos

Se pierde empleo en todos los sectores económicos (CNAE-2009) excepto en el sector servicios que gana 3.300 empleos netos, en términos relativos (0,5%). La construcción pierde 5.300 empleos netos, en términos relativos (-7,3%), le sigue la industria que pierde 300 empleos netos (-0,1%); por último el sector primario con 200 empleos menos (-2,3%).

Atendiendo a la situación profesional, desciende la ocupación entre los autónomos (-2,6%) y los asalariados (-0,5%) mientras que aumenta entre los cooperativistas (14,3%) y los empleadores (5,7%).

Respecto al género, el colectivo de varones ocupados baja un 1,1%, con 5.800 empleos netos menos, y el de las mujeres sube un 0,8%, con 3.200 empleos netos más.

Zerbitzuen sektoreko enplegu-igoera ez da gainerakoen jaitziera berdintzeko adinakoa


Zerbitzuetan 3.300 enplegu garbi irabazi dira (%0,5); gainerako guztietan (JESN-2009) enplegu-galera dago. Eraikuntzak 5.300 enplegu garbi galdu ditu (-7,3); Industriak 300 (-0,1) eta lehen sektoreak 200 (-2,3).

Lan-egoerari begiratuz, landun kopurua jaitsi egin da autonomoetan (-2,6) eta soldatukoetan (-0,5); igo, kooperatibistetan (%14,3); eta enplegatzaileetan (%5,7).

Generoaren arabera, gizonezko landunak %1,1 gutxiago dira, 5.800 enplegu garbi gutxiago; emakumezkoak %0,8 gehiago, 3.200 enplegu garbi gehiago.

16 urtetik gorako biztanleria okupatuaren bilakaera. Euskal Autonomia Erkidegoa 2009-2010. Urteko batez bestekoak. (Milaka)

Evolución de la población de 16 y más años ocupada. C.A. de Euskadi 2009-2010. Promedios anuales. (En miles)



Iturria/Fuente: EUSTAT

Desciende el número de ocupados con contrato indefinido (-2,4%)


Por lo que respecta a los asalariados, el número de los contratados indefinidamente desciende en un 2,4% en este año y el de los contratados temporales aumenta un 7,4%. Por ello, la tasa de temporalidad, entendida como la proporción de contratados temporales sobre el total de asalariados, es del 20,2% y resulta 1,6 puntos superior a la de 2009.

Mugagabeko kontratudun landunak gutxiago dira (-2,4%)

Bestalde, soldatuko artean, kontratu mugagabedunak %2,4 jaitsi ziren urte horretan eta aldi baterakoak %7,4 igo. Behin-behinekotasun tasa, alegia behin-behineko landunen proportzioa soldatadunen kopuru osoaz, %20,2 izan da, 2009koa baino 1,6 puntu handiagoa.

Soldatakoen kopuru osoaren gaineko aldi baterako kontratatuen proportzioa, sexuaren arabera. 1994-2010. Euskal Autonomia Erkidegoa. Urteko batez besteko (Ehunekotan).

Evolución de la proporción de contratados temporalmente sobre el total de asalariados por sexo 1994-2010. C.A. de Euskadi. Promedios anuales (En porcentajes)



Iturria/Fuente: EUSTAT

En cuanto a la proporción de asalariados contratados temporalmente sobre el total de los asalariados por sexo, para los varones se sitúa en 17,4% y para las mujeres se encuentra en el 23,4%.

El diferencial de la tasa de temporalidad por sexo aumenta en 0,4 puntos porcentuales con respecto al año anterior: de 5,6 puntos a 6.

La tasa de paro sube del 8,1% al 9,2%

Junto con la caída de la ocupación en el año 2010 se produce un incremento del número de parados en unos 11.700 respecto a 2009, con lo que, la cifra de parados alcanza las 95.900 personas. La tasa de paro sube al 9,2%, lo que supone 1,1 puntos porcentuales más que en 2009.

El número de parados aumenta en los tres territorios históricos: en Bizkaia (+8.400), en Gipuzkoa (+3.100) y en Álava (+200). En Álava la tasa de paro llega al 10% (0,1 puntos porcentuales más), en Bizkaia llega también al 10% (+1,4 puntos porcentuales) y en Gipuzkoa al 7,4% (+0,9 puntos porcentuales), siendo el Territorio con menor tasa de paro en 2010.

La brecha de la tasa de paro por sexo aumenta en 0,4 puntos porcentuales

En 2010 se ha incrementado el número de varones parados en 7.400 y el de las mujeres en 4.300. En términos relativos, el número de varones parados ha subido un 15,2% y el de las mujeres el 12,1%. La tasa de paro masculina asciende al 9,6% y la femenina al 8,6%.

El diferencial de la tasa de paro por sexo aumenta en 0,4 puntos porcentuales con respecto al año anterior, sigue siendo desfavorable para los hombres; esta brecha pasa de 0,6 puntos en 2009 a 1 punto en 2010.

Behin-behineko kontratua duten soldatakoen sexuaren arabera begiratzuz gero, gizonezkoen artean %17,4 dira; emakumeen artean, %23,4.

Behin-behinekotasun tasaren sexuaren araberako diferentziala ehuneko 0,4 puntuz handitu zen aurreko urtearen aldean: 5,6tik 6ra.

Langabezia-tasa %8,1etik %9,2ra igo zen

2010ean okupazioa jaitsi eta langabeak 11.700 inguru gehiago ziren 2009an baino, 95.900 pertsona. Langabezia-tasa %9,2ra igo da, hau da, 2009an baino ehuneko 1,1 puntu gehiago.

Langabeak hiru lurralde historikoetan ugaritu ziren: Bizkaian (+8.400), Gipuzkoan (+3.100) eta Araban (+200). Araban langabezia-tasa %10era igo da (0,1 ehuneko puntu gehiago); Bizkaian ere %10era igo da (ehuneko +1,4 puntu) eta Gipuzkoan %7,4ra (ehuneko +0,9 puntu), 2010ean langabezia-tasarik txikiena duen herrialdea delarik.

Langabezia-tasaren sexuaren araberako aldea 0,4 ehuneko-puntuz handitu zen

2010ean 7.400 gizon langabe gehiago izan ditugu, eta 4.300 emakume. Gizon langabeen kopurua %15,2 hazi da eta emakumeena %12,1. Gizonezkoen langabezia-tasa %9,6an da eta emakumezkoena %8,6an.

Langabezia-tasaren sexuaren araberako diferentziala ehuneko 0,4 puntu handitu zen aurreko urtearen aldean; hau da, 2009ko 0,6tik 2010eko 1era; beti ere gizonen kaltetan.

Aumentan el 9,8% los parados que buscan su primer empleo

Se incrementa el número de parados en todos los grupos de edad analizados: de 16 a 24 años (+6,2%), grupo que incluye el menor número de parados (13.800 personas), de 25 a 44 años (+6,6%) y de 45 y más años (39,7%). La tasa de paro juvenil asciende al 25%, 2,1 puntos porcentuales más que la de 2009.

El número de parados que buscan su primer empleo mantiene su tendencia creciente: de 4.100 parados en 2009 se amplía a 4.500 en 2010.


Lehenengo lanaren bila ari ziren langabeak %9,8 ugaritu ziren

Langabeen kopurua aztertutako adin talde guztietan handitu da: 16 urtetik 24ra (%+6,2), langabe gutxieneko taldea, 13.800 pertsona ; 25etik 44ra (%+6,6); 45 urteko eta gehiagoko taldean (%+39,7). Gazteen langabezia-tasa %25ean da, 2009koa baino ehuneko 2,1 puntu gehiago.

Lehenengo lanaren bila ari diren langabetuen kopuruak goranzko joerari eutsi dio; 2009an 4.100 ziren, 2010ean 4.500.

16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera. Euskal AE. 2009-2010. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)

Evolución de la población de 16 y más años parada. C.A. de Euskadi. 2009-2010. Promedios anuales (En miles)



Iturria/Fuente: EUSTAT

La tasa de ocupación femenina supera a la de la Unión Europea de los 27 y a la media española

Desde un punto de vista comparativo, se producen algunas diferencias entre los indicadores del mercado de trabajo de la C.A. de Euskadi y de la Unión Europea de los 27 países, en 2010.

La tasa de ocupación vasca para la población de 16 a 64 años resulta ser ligeramente superior a la europea (65,1% y 64,6%, respectivamente). La mayor diferencia se encuentra en la tasa de ocupación masculina (71,3%), ya que ésta es para la Unión Europea (70,7%) 0,6 puntos inferior a la de la C.A. de Euskadi. La tasa de ocupación femenina de la Unión Europea, se ve a su vez, superada en 3 décimas de punto por la de la C.A. de Euskadi (58,5% y 58,8% respectivamente).

Además, la tasa de ocupación femenina vasca, resulta ser mayor (5,8 puntos porcentuales) que el promedio de España.

Emakumeen okupazio-tasa 27-EBkoaren eta Espainiako batez bestekoaren gainetik da

Alderatze-ikuspuntua batetik, badira aldeak 2010eko Euskal AEko lan-merkatuari buruzko adierazleen eta Europar Batasuneko 27 estatuetako adierazleen artean.

16-64 urte bitarteko euskal biztanleriaren okupazio-tasa Europakoa baino handixeagoa da (%65,1, %64,6). Alderik handiena gizonezkoen okupazio tasan (%71,3) da; izan ere Europar Batasuneko (%70,7) 0,6 puntuz dago azpitik, Euskal AEkoaren aldean. Europar Batasuneko emakumezkoen okupazio-tasa, Euskal AEkoa baino hiru puntu hamarren txikiagoa da (%58,5, %58,8).

Euskal emakumezkoen okupazio-tasa, Espainiako batez bestekoa baino altuagoa da (ehuneko 5,8 puntu).

La tasa de paro femenino en la C.A. de Euskadi se sitúa por debajo de la del conjunto del Estado y de la Unión Europea

Respecto a las tasas de paro y en comparación con la Unión Europea, la tasa de paro media de los 27 países en 2010 es 0,1 puntos porcentuales superior a la de la C.A. de Euskadi.

La tasa de paro de la C.A. de Euskadi es más baja que la tasa promedio de España, destacando la diferencia con la tasa española de paro femenino (11,9 puntos menos) y siendo la tasa de paro masculino 10,1 puntos inferior.


Euskal AEko emakumezkoen langabezia-tasa Estatukoaren eta Europar Batasunekoaren azpitik kokatu zen

Langabezia-tasei dagokionez, Europar Batasuneko, 27ena, 2010ean, Euskal AEkoa baino ehuneko 0,1 puntuz gaitetik zegoen.

Euskal AEko langabezia-tasa Espainiako batez bestekoa baino baxuagoa da; nabarmentzekoa da emakumezkoen langabezian dagoen aldea (11,9 puntu gutxiago); gizonezkoena 10,1 puntu gutxiago da.

Lan- (16-64 urte bitarte) eta langabezia- (16 urte eta gehiago) tasak 27en Europako Batasunean, Espainian eta Euskal AEn, 2010. (%)

Tasas de ocupación (16 a 64 años) y paro (16 y más años) en la Unión Europea 27, España y C.A. de Euskadi 2010 (en %)



Iturriak/Fuentes:EUROSTAT: LFS; INE: EPA y EUSTAT; BJA/PRA

La proporción de contratados temporales entre los asalariados de la C.A. de Euskadi (20,2%) sigue siendo superior a la existente en la UE-27

En el campo de la ocupación se sigue produciendo una diferencia notable en cuanto a la estabilidad en el empleo. Según la última Encuesta de Fuerzas de Trabajo (LFS) de Eurostat (tercer trimestre de 2010), en el promedio de los 27 países europeos, algo más de uno de cada 10 asalariados tienen un contrato temporal (14,4%) y, en general, en todos los países esta proporción resulta inferior al 20%, salvo en España (25,6%), Polonia (28,1%) y Portugal (23,2%).

Euskal AEko behin-behineko kontratatuen proportzioa (%20,2) oraindik ere 27-EBkoaren gaitetik dago

Okupazioaren arloan, oraindik ere alde oso nabarmena dago enpleguaren egonkortasunari dagokionez. Eurostat-en azkeneko Lan Indarren Inkestaren arabera (2010eko hirugarren hiru hilabeteak), Europako herrialdeen batez bestekoa, 10 soldatetik 1ek baino zerbait gehiagok (%14,4) behin-behineko kontratua dute, eta orokorrean, herrialde guztietan proportzio hori %20tik beherakoa da, Espainian (%25,6), Polonian (%28,1) eta Portugalen (%23,2) izan ezik.

GLOSARIO

GLOSATEGIA

Población activa

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia aportan un trabajo para producir bienes y servicios (población ocupada), y las que carecen de empleo en ese momento, lo buscan activamente y están disponibles para incorporarse a él (población parada).

Población ocupada

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia han estado trabajando durante al menos una hora, a cambio de una retribución (salario, jornal, beneficio empresarial, etc.) en dinero o especie o sin retribución como ayuda familiar. También son ocupados quienes teniendo trabajo han estado temporalmente ausentes del mismo por enfermedad, vacaciones, etc.

Población parada

Personas de 16 ó más años que durante la semana de referencia no poseen un empleo asalariado o independiente, han buscado uno de forma activa en las últimas cuatro semanas y están disponibles para trabajar en las siguientes dos semanas.

Población inactiva

Población que no está ocupada ni parada; incluye a las personas que realizan las tareas del hogar, los que cursan estudios, los jubilados, los pensionistas, los rentistas y los incapacitados.

Tasa de actividad de un grupo

Proporción de activos sobre la población de 16 y más años de ese grupo. EUROSTAT calcula las tasas de actividad para la población de 15 y más años.

Tasa de paro de un grupo

Proporción de parados de un grupo sobre el total de activos de ese grupo.

La Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) es una operación estadística que viene realizándose por Eustat desde 1985. Tiene por objeto fundamental producir información continua sobre la oferta del Mercado de Trabajo de la C.A. de Euskadi. Trimestralmente da cuenta de la población ocupada, parada e inactiva, así como de sus variaciones y de las principales características sociales de estos colectivos.

Los datos de la PRA están sujetos a errores de muestreo derivados de la utilización de una muestra formada por 5.088 familias de la C.A. de Euskadi, a las que se encuesta cada trimestre, formando un panel. Los errores de muestreo de la PRA están en www.eustat.es a disposición de los usuarios interesados. El Coeficiente de Variación de la estimación de la población ocupada es 1,3% y de la población parada es 3,7%. Como consecuencia, los límites del intervalo de confianza son 925.000 y 972.800 para la población ocupada y, 88.900 y 102.900 para la población parada (datos de 2010, a un Nivel de Confianza del 95%).

Biztanleria aktiboa

16 urteko edo gehiagoko biztanleria da, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko erreferentziako astean lan egiten dutenak (biztanleria landuna); eta momentu honetan lanik ez dutenak, lan bila aktiboki dabiltzanak eta lanerako prest daudenak (biztanleria langabea).

Biztanleria landuna

16 urte edo gehiagoko biztanleria da, erreferentziako astean ordubetez gutxienez lan egin dutenak ordainsari baten truke (soldata, jornala, mozkinak e.a.), dirutan edo gauzatan edo ordainsaririk gabe familia laguntza gisa. Landunak dira lana izanda ere denbora batez lanean izan ez direnak gaixotasuna, opporrak eta abar direla-eta.

Biztanleria langabea

16 urteko edo gehiagoko biztanleria, erreferentziako astean soldatako lanik edo lan beregainik izan ez, azken lau asteetan aktiboki lan bila ibili eta hurrengo bi asteetan lan egiteko prest dagoena.

Biztanleria ez-aktiboa

Landuna edo langabea ez den biztanleria; hor sartzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak.

Talde baten aktibotasun-tasa

Aktiboen kopurua, talde bateko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean. EUROSTATEk 15 urte eta gehiagoko biztanleriarentzako kalkulatzan ditu aktibotasun-tasak.

Talde baten langabezia-tasa

Talde bateko langabe-kopurua, talde horretako aktiboen guztizkoaren aldean.

Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA), Eustatek 1985etik egiten duen estatistika-eragiketa da. Helburu nagusizat dauka Euskal AEko lan-merkatuaren eskaintzaren gaineko aldian behingo informazioa eskaintzea. Hiru hilean behin, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren berri ematen du, bai eta talde horien gorabehera nagusien eta gizarte-ezaugarrien berri ere.

BJAren datuak laginketa-akatsi atxikita daude, Euskal AEko 5.088 familiek osatutako lagin baten erabilpenetik ateratako akatsi, hain zuzen. Familia horiei hiru hilean behin egiten zaie inkesta, panela osatuz. BJAren laginketa-akatsak helbidean daude, erabiltzaile interesatuen eskuan. Biztanleria landunaren Aldakuntza Koeffizientea %1,3 da eta langabearena %3,7. Ondorioz, konfiantza tartearen mugak biztanleria landunarentzat 925.000 eta 972.800 dira, eta 88.900 eta 102.900 langabearentzat (2010eko datuak, %95eko konfiantza-mailarekin).

INFORMAZIO-ESKAERA / SOLICITUD DE INFORMACIÓN

Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:
EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 75 00
Fax: 945 01 75 01
e-mail: eustat@eustat.es
www.eustat.es

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

